

Gasteizko euskalgintzak harremana eten du Udal Euskara Kontseiluarekin

“KONTSEILUAN GENUEN HARREMANA posta elektronikoko bidezko harremanagatik ordezkatu daiteke”. Gasteizko euskalgintzako ordezkartzaren esan da, Udal Euskara Kontseiluari buruz ari dela. Gasteizko euskalgintzako ordezkariak eta udaleko ordezkariak biltzen zituen kontseiluak gaur egun funtzionatzen zuen moduan zentzurik ez duela adierazi dute euskalgintzako ordezkariak. Azkeneko bilerara joan bai, baina bertan behera utzi zuten.

Euskalgintzako ordezkartzan ondoak daude: AEK, IKA, Udaberria eta Hegoaldea euskaltegiak, Zabalzana Batuz, Bai Euskarari, GEU, Arabako

Bertsozale Elkarte, Orhum Zine Foruma, Euskal Herrian Euskaraz eta Denon Eskola. Haien ustez, kontseiluak “ez du balio funtsezko eztabaidak bideratzeko, ez hartzen diren erabakiak betetzen direla bermatzeko, ez egokitzapenak adosteko”. Ez dute zalantzan jarri Euskara Kontseiluaren egitekoa, ezta udalak duen euskara normalizatzeko plana ere. Alabaina, bileretan udalak aurrez hartutako erabakiak azaldu baino ez zuela egiten salatu dute. Hilabeteak zeramatzaten horrela, eta azkenean, harremana bertan behera uztea erabaki dute. Euskara Zerbitzuarekin zuten harremanari eutsi egingo diote. ■

Bahea

Paula Kasaresek gipuzkoa.euskara.net-en esanak:

“Iruñean –aski inguru erdaldunduan– antzeman dudaren arabera, bikote mistoetako guraso euskaldunek ez dute kasurik gehienetan haurrak euskaldun hazteko gutxienezko erabilera bermatzen. Kontua da haurrak euskaraz eskolatzen dituztela eta azkenean eskolari esker –baina ez guraso euskaldunarekiko harremana aski delako– euskalduntzen dira”.

Euskaraz txioka Mintegi garaile

DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO DeustoSareLab-ek Legebiltzarrerako hautagaien kanpainako txioak aztertu ditu (irailaren 23tik urriaren 7ra); zenbat euskaraz eta gaztelaniaz. Laura Mintegi (EH Bildu) izan da euskaraz gaztelaniaz baino mezu gehiago bidali dituen bakarra; euska-

raz %59,20 eta gaztelaniaz %40,80. Iñigo Urkullu (EAJ) ez da iritsi mezuen laurdena euskaraz egitera (%21,60) eta mezuen %78,30 gaztelaniaz zabaldu du. Euskarazko kopurua kontuan hartuta ondokoa da gainerako hautagaien zerrenda: Aitor Urrestik (Equo) %17,70 euskaraz eta

%82,30 gaztelaniaz; Mikel Aranek (Ezker Anitza) %7 euskaraz eta %93 gaztelaniaz; Gorka Maneirok (UPD) mezuen %0,10 bidali du euskaraz; Patxi Lopez (PSE-EE), Antonio Basagoiti (PP) eta Raquel Modubarrek (Ezker Batua-Berdeak) txio guztiak bidali dituzte gaztelaniaz. ■

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Larrialdi nazionala

HAUTESKUNDE KANPAINA amaiturik, orain promesak bete behar dira. EAEn izan dugun kanpainan, egoera sozioekonomikoak eta laboralak eragin handia izan du. Alderdi eta koalizioek langabeziaren larritasuna, murrizketa sozialak eta ongizatea desegitea salatu dute, eta hitz eman dute egoera horri erantzungo ditela. Ia guztiak, beraz, konpromisoa azaldu dute gizartearen aurrean soluzioak bilatzeko, hala nola: enplegua sortzeko eta formula berriak aztertzeak fiskalitatearen bidetik, gehien dutenei gehiago kargatuz. Langabeziaren igoera (190.000 lagun irailan), batez ere gazteen artean; pobreziaren gorakada (100.000 pertsona inguru); gero eta enpresa gehiagok atek itxi edo soldata ordaintzeari uztea; etxetik kanporatzeak; emigrazioa; adinekoentzat egoitza publikorik ez egotea; menpekotasuna duten pertsonentzat diru-laguntzak gutxitzea... Horrek guztiak gure jen-

dartearen argazki erreala osatzen du. Eta gehitzen badiogu krisiari aurre egiteko tresna hobekak edukitzea eragozten digun subiranotasun ekonomiko eta politikorik eza, argazkia osaturik geratzen da. Larrialdi nazionala islatzen duen argazkia.

Egoera horrekin, justua, beharrezkoa eta desiratzeak litzateke, EAeko gobernu berria osatzen denean, haren buru denak alderdi guztiak deitzea, baita enpresariak, sindikatuak eta mugimendu sozialak ere, eta fronte orokorra sortzea –deitu hitzarmen edo deitu akordio– gizartearen eta nazioaren larrialdi egoerari aurre egiteko. Fronte horren lehentasuna izan behar luke enplegua eta aberastasuna sortzea, ongizatea mantendu eta indartzea, egiazko erreforma fiskala martxan jartzea –gehien dutenak gehiago kargatuz– eta erabakitzeko eskubidea errespetaraztea. Hauteskundeeetako promesak betetzeko modua litzateke hori. ■

Juan Mari Arregi

